AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

ENPLEGU ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA

51

AGINDUA, 2013ko abenduaren 19koa, Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburuarena, Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailean hutsik dagoen lanpostu bat izendapen askez betetzeko deialdia ebazten duena.

Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legeko 46.2.c) artikuluan eta Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailean hutsik dagoen lanpostu bat izendapen askez betetzeko deialdia iragartzen duen Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburuaren 2013ko urriaren 16ko Aginduaren laugarren oinarrian xedatutakoaren arabera (2013ko azaroaren 6ko EHAA, 211. zk.), honako hau

XEDATZEN DUT:

Lehenengoa.– Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailaren Gipuzkoako Lurralde Ordezkaritzan, Ramón Lertxundi Aranguena jauna lurralde-ordezkari izendatzea (kodea: 511786; destino-osagarria: 29; dotazioa: 8).

Bigarrena.– Izendapen honek 2013ko abenduaren 20tik aurrera izango ditu ekonomia- eta administrazio-ondorioak.

Hirugarrena.– Agindu honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, beraren aurka, aukerako berraztertzeko errekurtsoa aurkez dakioke eman duen organoari berari, hilabeteko epean, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera. Bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke, Administrazioarekiko Auzien Epaitegian, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hil biko epean.

Vitoria-Gasteiz, 2013ko abenduaren 19a.

Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburua,
JUAN MARÍA ABURTO RIQUE.